



## ALTZARIAK– INGURUMEN-IRIZPIDE SINPLIFIKATUAK

### Prozedura ireki bidez kontratatzeko eta lehiaketa bidez esleitzeko ingurumen-irizpideak

Oinarrizko maila	Maila aurreratua
<b>KONTRATUAREN XEDEA:</b>	<b>KONTRATUAREN XEDEA:</b>
<p>Kontratu honen xedea bulegoko altzariak eta ekipamendua eskuratzea da, baita eskuratutako altzariak instalatzea ere.</p> <p>Lan segurtasuna eta osasuna zaintzeko eta ingurumenarekiko kaltea txikitzeko, altzariak gutxienezko irizpideak bermatu beharko dituzte ergonomiari, erosotasunari, segurtasunari eta ingurumen kalitateari dagokionez. Horrez gain, hornikuntza-zerbitzua ingurumena errespetatuz eman beharko da.</p>	<p>Kontratu honen xedea bulegoko altzariak eta ekipamendua eskuratzea da, baita eskuratutako altzariak instalatzea ere.</p> <p>Lan segurtasuna eta osasuna zaintzeko eta ingurumenarekiko kaltea txikitzeko, altzariak gutxienezko irizpideak bermatu beharko dituzte ergonomiari, erosotasunari, segurtasunari eta ingurumen kalitateari dagokionez. Horrez gain, hornikuntza-zerbitzua ingurumena errespetatuz eman beharko da.</p>
<b>GAITASUN TEKNIKOA (nahitaez betetzekoa):</b>	<b>GAITASUN TEKNIKOA (nahitaez betetzekoa):</b>
<p>Enpresak kalitatea kudeatzeko ISO 9001 sistema edo baliokide bat ezarrita eta ziurtatuta izan beharko du.</p> <p>Horrez gain, kontratua gauzaterakoan ingurumen-kudeaketako jardunbide egokiak sistematikoki aplikatzen direla bermatu beharko du, altzariak instalatzeko ingurumen-kudeaketako sistema egiaztatu baten bitartez (esaterako, EMAS, ISO 14001, Ekoscan edo baliokidea); edo</p> <p>Ian-osasuna babesteko eta ingurumena zaintzeko laneko prozedurak</p>	<p>Enpresak kalitatea kudeatzeko ISO 9001 sistema edo baliokide bat ezarrita eta ziurtatuta izan beharko du.</p> <p>Horrez gain, kontratua gauzaterakoan ingurumen-kudeaketako jardunbide egokiak sistematikoki aplikatzen direla bermatu beharko du, lorezaintza-zerbitzurako ingurumen-kudeaketako sistema egiaztatu baten bitartez (esaterako, EMAS, ISO 14001, Ekoscan edo baliokidea); edo</p> <p>Lan-osasuna babesteko eta ingurumena zaintzeko laneko prozedurak</p>

<p>eta arauak izan beharko ditu.</p> <p><b>Egiaztapena:</b> Lehenengo eta bigarren kasuetan, enpresak kalitatea eta ingurumena kudeatzeko sistemen ziurtagiriak erantsi beharko ditu. Hirugarrenean, berriz, lizitatuzaileak, B gutun-azalean, bere gaitasuna balioesteko aipatutako prozedurak jasoko ditu.</p>	<p>eta arauak izan beharko ditu.</p> <p><b>Egiaztapena:</b> Lehenengo eta bigarren kasuetan, enpresak kalitatea eta ingurumena kudeatzeko sistemen ziurtagiriak erantsi beharko ditu. Hirugarrenean, berriz, lizitatuzaileak, B gutun-azalean, bere gaitasuna balioesteko aipatutako prozedurak jasoko ditu.</p>
<p><b>ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK (nahitaez betetzekoak):</b></p>	<p><b>ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK (nahitaez betetzekoak):</b></p>
	<p><b>Ekodiseinua</b></p> <p>1. Eskainitako produktuak ingurumenaren alderditik hobetuak izango dira; ekodiseinu-prozesuen bitartez eta/edo bizi-zikloaren ikuspegitik hobetuak, egiazko informazioan oinarrituta.</p> <p><b>Egiaztapena:</b> Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 1.goa, 2.a, 3.a eta 10.a (ikusitako egiaztapen-dokumentuak) edo produktua ingurumenaren aldetik hobetzeko Bizi Zikloaren Azterketa (BZA) UNE-EN-ISO 14040 eta 14044 ziurtagirien edo arau baliokideen arabera aplikatu dela adierazten duen fabrikatzailearen txostena (esaterako, produktuaren ingurumen-adierazpena), ezarritako neurriak eta lortutako hobekuntzak adierazita.</p>
<p><b>Zurezko taulak, partikulezkoak eta zuntzezkoak</b></p> <p>1. Erabilitako zur-partikulen edo -zuntzen iturburua (espezieak eta jatorria) erakusten duen dokumentazioa nahitaez aurkeztu behar da. CITES konbentzioan (Convention on International Trade in Endangered Species) jasotako espezie mehatxatuak erabiltzea debekatuta egongo da.</p> <p><b>Egiaztapena:</b> Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hau aurkeztu beharko da: 9.a (ikusitako egiaztapen-dokumentuak).</p> <p>2. Giza osasunean eragiten dituen kalteak direla eta, erabiltzen diren</p>	<p><b>Zurezko taulak, partikulezkoak eta zuntzezkoak</b></p> <p>2. Erabilitako zur-partikulen edo -zuntzen iturburua (espezieak eta jatorria) erakusten duen dokumentazioa nahitaez aurkeztu behar da. CITES konbentzioan (Convention on International Trade in Endangered Species) jasotako espezie mehatxatuak erabiltzea debekatuta egongo da.</p> <p><b>Egiaztapena:</b> Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hau aurkeztu beharko da: 9.a (ikusitako egiaztapen-dokumentuak).</p> <p>3. Zuraren % 20k gutxienez baso-kudeaketa jasangarriaren ziurtagiria</p>

<p>tauletan formaldehidoen isuriak mugatuta egongo dira. Gutxienez E2 motako taulak erabili beharko dira, EN 13.986:2002 arauaren edo baliokideen arabera.</p> <p><b>Egiaztapena:</b> <i>Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hau aurkeztu beharko da: 6.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).</i></p>	<p>eduki behar du (FSC, PEFC edo baliokidea) eta/edo birziklatua izan behar du.</p> <p><b>Egiaztapena:</b> <i>Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hau aurkeztu beharko da: 4.a, 5.a, 7.a eta 9.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).</i></p> <p>4. Giza osasunean eragiten dituen kalteak direla eta, erabiltzen diren tauletan formaldehidoen isuriak mugatuta egongo dira. Gutxienez E1 motako taulak erabili beharko dira, EN 13.986:2002 arau teknikoaren edo baliokideen arabera.</p> <p><b>Egiaztapena:</b> <i>Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hau aurkeztu beharko da: 6.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).</i></p>
<p><b>Material plastikoak</b></p> <p>3. 50 g baino gehiago pisatzen duten plastikozko zati guztiek ISO 11469 edo baliokideren baten arabera markatuta egon behar dute eta ezin dute birziklatzeko zailtasunak sortzen dituen estaldurarik izan.</p> <p><b>Egiaztapena:</b> <i>Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hau aurkeztu beharko da: 7.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).</i></p>	<p><b>Material plastikoak</b></p> <p>5. 50 g baino gehiago pisatzen duten plastikozko zati guztiek ISO 11469 edo baliokideren baten arabera markatuta egon behar dute eta ezin dute birziklatzeko zailtasunak sortzen dituen estaldurarik izan.</p> <p><b>Egiaztapena:</b> <i>Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hau aurkeztu beharko da: 7.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).</i></p> <p>6. Altzarietan ez dira plastiko kloratuak erabiliko.</p> <p><b>Egiaztapena:</b> <i>Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hau aurkeztu beharko da: 7.a eta 9.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).</i></p> <p>7. Plastikozko piezetako plastikoaren % 20 gutxienez birziklatua edo biodegradagarria izango da.</p> <p><b>Egiaztapena:</b> <i>Proposamenean barne hartutako produktu</i></p>

	<p><i>bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 7.a eta 9.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).</i></p>
	<p><b>Gainazaleko tratamenduak (pintura, bernizak eta lakatuak)</b></p> <p>8. Pisuan % 1etik gorako kantitatea duten gainazaleko tratamenduetan ez dira disolbatzaile aromatikoak erabiliko, ezta KOHak ere (konposatu organiko hegazkorrak).</p> <p><b><u>Egiaztapena:</u></b> <i>Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauek aurkeztu beharko dira: 8.a eta 9.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).</i></p> <p>9. Era berean, gainazaleko tratamenduetarako ez dira 199/45/EE zuzentarauaren arabera kartzinogeno, ugalketa sistemarako kaltegarri, mutageno, toxiko edo alergeniko (arnasten direnean) gisa sailkatutako agenteak erabiliko.</p> <p><b><u>Egiaztapena:</u></b> <i>Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hau aurkeztu beharko da: 8.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).</i></p>
<p><b>ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK:</b></p> <p>Espezifikazio baloragarriak eskainitako produktu bakoitzeko puntuatuko direnez, irizpide teknikoaren eta ingurumen-irizpideen guztizko puntu-kopurua altzari-pieza guztiek jasotako puntuen batez bestekoa izango da.</p>	<p><b>ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK:</b></p> <p>Espezifikazio baloragarriak eskainitako produktu bakoitzeko puntuatuko direnez, irizpide teknikoaren eta ingurumen-irizpideen guztizko puntu-kopurua altzari-pieza guztiek jasotako puntuen batez bestekoa izango da.</p>

**Produktuaren materialen ingurumen-hobekuntzak, gehienez 10 puntu:**

**Zurezko taulak, partikulezkoak eta zuntzezkoak**

1. Basoen kudeaketa jasangarriarekin lotutako zuntzen eta/edo zuntz birziklatuen %a handiagoa izatea balioetsiko da (gehienez 2 puntu).

Formula:

$$BEP = \frac{BE \times 2}{EO}$$

Azalpena: **BE:** Balioetsi nahi den eskaintzan, modu jasangarrian kudeatutako basoetako zuntzen % (BALIOETSITAKO ESKAINTZA)  
**EO:** Eskaintzen artean modu jasangarrian kudeatutako basoetako zuntzen % handiena (ESKAITZARIK ONENA).  
**BEP:** Balioetsi beharreko eskaintzari ematen zaion puntuazioa.

**Egiaztapena:** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 4.a, 5.a, 7.a eta 9.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).*

2. E1 motako taulak erabiltzea balioetsiko da (2 puntu).

**Egiaztapena:** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hau aurkeztu beharko da: 6.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).*

**Produktuaren materialen ingurumen-hobekuntzak, gehienez 10 puntu:**

**Zurezko taulak, partikulezkoak eta zuntzezkoak**

1. Basoen kudeaketa jasangarriarekin lotutako zuntzen eta/edo zuntz birziklatuen portzentaia % 20tik gorakoa izatea balioetsiko da (gehienez 6 puntu).

Formula:

$$BEP = \frac{BE \times 6}{EO}$$

Azalpena: **BE:** Balioetsi nahi den eskaintzan, modu jasangarrian kudeatutako basoetako zuntzen % (BALIOETSITAKO ESKAINTZA).  
**EO:** Eskaintzen artean modu jasangarrian kudeatutako basoetako zuntzen % handiena (ESKAITZARIK ONENA).  
**BEP:** Balioetsi beharreko eskaintzari ematen zaion puntuazioa.

**Egiaztapena:** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 1.goa, 2.a, 3.a, 7.a eta 9.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).*

### Material plastikoak

3. Plastikoen artean plastiko kloratzailerik ez izatea balioetsiko da (gehienez 2 puntu).

**Egiaztapena:** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 7.a eta 9.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).*

4. Plastikoz birziklatua eta/edo biodegradagarria erabiltzea balioetsiko da (gehienez 2 puntu).

Formula:

$$BEP = \frac{BE \times 2}{EO}$$

Azalpena: **BE:** Balioetsi nahi den eskaintzan, plastiko eta/edo biodegradagarrien %a (BALIOETSITAKO ESKAINTZA).

**EO:** Eskaintzen artean plastiko birziklatu eta/edo biodegradagarriaren % handiena (ESKAINTZARIK ONENA).

**BEP:** Balioetsi beharreko eskaintzari ematen zaion puntuazioa.

**Egiaztapena:** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 7.a eta 9.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).*

### Material plastikoak

2. Plastikoz birziklatua eta/edo biodegradagarria > % 20 izatea balioetsiko da (gehienez 4 puntu).

Formula:

$$BEP = \frac{BE \times 4}{EO}$$

Azalpena: **BE:** Balioetsi nahi den eskaintzan, plastiko eta/edo biodegradagarrien %a (BALIOETSITAKO ESKAINTZA).

**EO:** Eskaintzen artean plastiko birziklatu eta/edo biodegradagarriaren % handiena (ESKAINTZARIK ONENA).

**BEP:** Balioetsi beharreko eskaintzari ematen zaion puntuazioa.

**Egiaztapena:** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 7.a eta 9.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).*

EGIAZTAPEN-DOKUMENTUAK (*):			
1. Aingeru Urdina etiketa		6. Laborategiko testa	
2. Europar Batasuneko Etiketa Ekologikoa		7. Enpresaren/fabrikatzailearen deklarazioa	
3. Beltxarga Zuria etiketa		8. Segurtasun-fitxa	
4. FSC		9. Deskribapen teknikoa	
5. PEFC		10. UNE-EN ISO 14006 eranskina	

(\*): Horiek dira baloratuko den espezifikazio edo irizpide bakoitzaren betetzea modu argienean bermatzen duten ingurumen-ziurtagiriak eta ekoetiketak edota informazioa jaso dezakeen dokumentazioa, baina egiaztapen-dokumentazio baliokidea ere onartuko da, finkatutako irizpideak betetzen direla argiro frogatzen badute.

OHARRAK:
<p>Dokumentu honetan garatutako irizpideez gain, metalezko elementuekin, mantentzearekin eta bilgariekin zerikusia duten baldintzak ere adieraztea interesgarria izan daiteke.</p> <p>Informazio gehiago nahi izanez gero, <a href="http://www.ihobe.eus">www.ihobe.eus</a> webguneko <b>Erosketa Publiko Berdearen atala</b> kontsulta dezakezu edo Ihoberekin harremanetan jar zaitezke, bide hauetatik:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Tel.: 94 423 07 43</li> <li>• Helbide elektronikoa: <a href="mailto:compra.publica@ihobe.eus">compra.publica@ihobe.eus</a></li> </ul>